



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta EH Bildu Taldeko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo **GALDERA** egiten dio **Cristina Uriarte Hezkuntza** sailburuari idatziz erantzun dezan **Pasaiaiko Karmengo Ama DBH** ikastetxean egitekoak diren obrei buruz.

ZIOA:

Pasa den legegintzaldian, familia eta irakasleen borrokaren eskutik Pasaiaiko Karmengo Ama Ikastetxean DBH ezartzea lortu eta adostu zen. Hurrengo pausua eraikinaren egokitzea zen. Egokitze lan horiek uda honetan egitea aurreikusten zen, ikasleei ahalik eta gutxien eragin ziezaien. Horregatik ikastetxean jada prestaketak egiten ari ziren obrak uda honetan egiteko.

Aldiz, EH Bilduk jakin duenez eta ikastetxeko komunitateak hala konfirmatu duenez, inolako arrazoirik eman gabe, Eusko Jaurlaritzak, obra hori urte amaierara arte atzeratuko duela jakin arazi du pasa den astean, zoritxarrez hainbestetan entzun dugun “Pasaia lehentasuna ez dela” argudiopean.

Erabaki honek, egokitzapena atzeratzeaz gain, obrak ikasturte erdian egitea dakar, ikastetxeko ordutegi guztien moldaketa eta Lehen Hezkuntzako klase guztiak goizez ematera behartuz (15:00ak arte, modu intentsiboan).

Legebiltzarkide gisa dagokidan eginkizuna ahalik eta modurik onenean bete ahal izateko, EH Bildu legebiltzar-taldearen izenean, ondorengo **GALDERA** egiten dio **Cristina Uriarte Hezkuntza** sailburuari **Pasaiaiko Karmengo Ama DBH** ikastetxean egitekoak diren obrei buruz.

GALDERA:

- Zeintzuk dira Hezkuntza sailaren asmoak Pasaiaiko Karmengo Ama DBH ikastetxean egitekoak diren obren inguruan?
- Zeintzuk dira obraren atzerapenaren arrazoiak?
- Zeintzuk dira obrarako epe berriak?
- Noiz dago aurreikusia ikasleek normaltasunez klaseak jaso ahal izatea?
- Zein balorazio egiten du Hezkuntza sailak atzerapen honen inguruan?

Gasteizen, 2017ko maiatzaren 18an



Rebeca Ubera Aranzeta

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea